



LOTURA METALIKOA

LOTURA METALIKOA: Metaletan ematen da.

METALAK (ELEKTROPOSITIBOA) balentzia elektroiak askatzean katioiak osatzen ditu. Oso era ordenatuan kokatzen dira, **KRISTALAK OSATUZ** horregatik giro tenperatura **SOLIDOAK** dira.

Askatutako elektroiek hodei elektronikoa osatzen dute eta honek sorturiko metalen katioiak inguratzen ditu horrela egitura egonkorra mantentzen da.

FORMULA ENPIRIKOAREKIN adierazten dira. $(Na)_n$ n-k atomoen errepikapena solidoan adierazten du.



METALEN PROPIETATEAK

1.-Giro tenperatura solidoak dira oro har Hg-a izan ezik (likidoa da).

Sarearen egituraren arabera, **fusio eta irakite puntu altuak** dituzte alkalinoak izan ezik. Lotura sendoa denez tenperatura altua beharrezkoa da.

IRAKITEAN/URTZEAN APURTZEN DEN LOTURA METALIKOA DA.

2.- Elektrizitate eta bero eroale onak dira solido egoeran edo urtuta:

Elektroiek erabateko mugikortasuna dutenez elektrizitate eroale onak dira.

Sarean katioiak oso elkarturik daudenez bibrazioak erraz transmititzen dira, beraz bero eroale onak ere dira.

3.- URETAN EZ DIRA DISOLBATZEN, azido sendoetan bai.

4.-Fusio-egoeran beste metalekin aleazioak osatzen dituzte

5.-Harikorrak eta xaflakorrak dira, ez daudelako norabide jakin bateko loturarik.

Kolpe bat eman ondoren, egitura aldatzen bada elektroiak berriro katioien artean sakabanatzen dira. Horregatik, **ez dira apurtzen**, moldatu egiten dira.

6.-Disolira metalikoa erakusten dute.